

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko urriaren 8a / 689. zenbakia



UMEENDAKO MASAJEAK

Emakume Txokoak 0 eta 3 urte bitarteko umeak dituzten gurasoei zuzendutako ikastaroa antolatu du

ORAIN ETA HEMEN: UDAL GOBERNUARI KRITIKA/7 • KULTURA: NAFARROAREN ALDEKO EGITARAU/11

ARGAZKIAK: UBANE MADERA. AZALA: ALEX AZKARATE

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 8**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ZAPATUA, 9**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- DOMEKA, 10**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 11**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- MARTITZENA, 12**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUAZTENA, 13**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUENA, 14**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUBAKOITZA, 15**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelenehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelenehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (elebiduna) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 meza nagusia (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	San Isidro eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 (euskaraz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza
	Domeka 12:30 (elebiduna)

OHARRAK

1954AN JAIOTAKOAK
1954an jaiotako gizonezko eta emakumezko arrasatearrek jaia egingo dute azaroaren 13an. 12:00etan meza entzungo dute San Juan Bataiatzailearen elizan, eta 14:30ean, bazkaria eta dantzaldia izango dira Sara jatetxean. Interesatuok urriaren 30a aurretik eman behar dute izena, eta 50 euro ordaindu Euskadiko Kutxan.

ARETO DANTZAK
Marian Barragan irakasleak areto dantzak emango ditu Corazon de Encina elkartearen eta Musakolako kiroldegian, martitzenetan eta zapatuetan. Urriaren erdialdean hasiko dira. Deitu honako telefono zenbakira: 677 05 30 02.

1942AN JAIOTAKOAK
1942an jaiotako emakumezkoek euren eguna ospatuko dute urriaren 23an. 12:30ean meza entzungo dute San Frantzisko elizan; eta 14:30ean, Musakola Hostalean bazkalduko dute. Interesatuok jo Mari Carmen Aranbururengana urriaren 18a aurretik. Izena ematean 10 euro ordaindu beharko dira.

FILMAK AMAIA ANTZOKIAN
Asteburuan, filmak, Amaia Udal Antzokian.

AEDren AGENDA

HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN
Urriko azkeneko asteburuan Hiru Haundixek Hiru Egunetan mendi ibilaldia egingo dute. Lagundu gura baduzu, jo AEDra.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Santa Marina kalea autoendako zabalik

Autoen zirkulazioarekin sortzen ziren arazoekin bukatzeko, Santa Marina kalea zabaldu egin zuten eta goialdean biribilgunea egin zuten. Horrez gain, Santa Marina kaleko eskumako espaloia eta goiko kalekoa handitu egin zituzten. 20 milioi pezeta zehaztu zituzten lan hori egiteko.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Gibelaundi”



Gibelaundixa
— Gibelaundi samarra ezpaltitz ardurak ittoko leukie.

JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7

Arrasate Irratian ere zoriontzeko aukera!
943 71 17 31

Senideari, lagunari edo lankideari ustekabe atsegina emateko zorion agurren tartea

Oraingo astean ekin diegu udazken-neguko saioei Arrasate Irratian. Horrela bada, datozen hila-beteotan, egunero 09:00etatik aurrera zu zeu ere *Igo Autobusera!*, zuretako ere badugu jarleku bat gordeta.

Berritasunik ez da faltako aurtengo ikasturtean. Horien artean, 12:20an, zorion agurren tartea. Tarte bizi bat egitea dugu helburu, horretarako, bada, zuen parte-hartzea ezinbestekoa dugu. Zuen etxeko, lankide edo lagunengana heldu gura genuke. Egun

berezi horretako ospakizunetan ere, Arrasate Irratiak parte izan gura du. 943 71 17 31 telefono zenbakiaren bitartez, jo herriko irrati eta lagun egiguzu zorion agurren zerrenda osatzen. Opari merkea zein polita!

ASTEBURUKO GAINBEGIRATUAN
Asteburuan, berriz, asteko hainbat elkarrizketa berreskuratuko ditugu. Horien artean, Josemari Velez de Mendizabalek oraingo astean hil den Martin Ugalderen gainean kontatutakoak.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**: Josemari Velez de Mendizabal, Martin Ugalderen gainean; Pello Zabala metereologoa, hurakan eta tifoien gainean; Jabier Muguruza abeslaria...
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landu).
Elkarriketak.
Danbakaren geltokia.
Gazte Bulegoaren geltokia.
Merkatu txikiaren geltokia.
Zozketak, etab...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratik albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tartea.**
- 12:30 **Izarren ordua**: abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratik albistegia.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratik albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Iraken, gobiernuek behin eta berrero esan daue terroristekin ezin dala negoziatu.

LUIS RUIZ
LangillieGREGORIO AZKOAGA
LangillieJAVI ZABALO
IkaslieLORENA SAN VICENTE
IkaslieOLATZ ORTEGA
LangillieARGIÑE ALBERDI
Langabie

Esaten daue ez dala egin biher, baiñe atzetik egin egittin daue. Gobiernuek ez leukena egin biher da terroristak egoteko motiborik sortu, Iraken pasau dan moduen.

Terroristekin negoziatu? Gobiernuek egin biherko leukiena da Iraketik alde egin. Irakeko herrixe hanguena da, eta amerikaneuk eta inglesekin alde egin biher daue handik.


Neure ustez horreik ez die terroristak. Euren herriren sartu badie defendiduteko eskubide dana daukie. Lotsagarrixe da gobiernuek diruagaittik ze egittete kapaz dien.

Neu ez nau horrekin konforme. Neure ustez gobiernuek terroristekin negoziatu egin biherko leukie, gaur egungo egoerie ez da eta bape ona. Negoziaute konponbidie egon leike.

Neuk uste dot danan gainetik berba egin biher dala, bakotzak bere aldera tiraketan badau ez dalako ezer konponketan. Horrek Irakerako eta beste danerako balixo dau.

Gaur egun negoziatie biher-biherrezkue da, berbarik egin barik ezin da eta inora be aillegau. Parte bakotzak bestie entzun egin biher dutzo, eta gero akordie egin.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZAILTASUNAK DITUZTENENDAKO LANAK Aspaldian Uribe auzoan hainbat lan egiten dabilta. Orain arte, auzo hori eskaileraz eta koskaz beteta egon da, eta zailtasunak dituztenendako oztopo mordoa daude. Irakurle batek esan digu dagokionari eskatzeko, lanak egiten dabiltzala baliatuta, eskailerak eta koskak beharrean maldatoxak ipintzeko. Bide batez, gurpildun aulkiak balia daitezten.

ETABARRUAN...

KIROLA / 9

Saskibaloiko babesleak

Martitzean aurkeztu zituzten Arrasate Saskibaloiko Taldeko babesleak: Mugarri eta Alksa.

KULTURA / 10

Bertso Eskola egin gura dute

AEDk, Loramendik eta Axtrokik Leintz Bertso Eskola sortu gura dute, 9 eta 11 urte bitartekoendako.

GAZTEAK / 12

'Gomendatzen dizut' lehiaketa

Joan den astean eman zuten aditzera Gomendatzen dizut lehiaketaren irabazlearen izena.

ASTEKODATUA

10

PUNTUAN AZTERTU DUTE IBILGAILUEN ABIADURA

Mugikortasun planaren baitan, Arrasateko hamar puntuan aztertu dute ibilgailuek herri barruan daramaten abiadura, eta, bide batez, zenbat ibilgailu igarotzen diren puntu horietatik.

BESTEEKESANA

“

Eusko Jaurlaritzari, aldundiei eta udalei bost axola zaizkie hedabide lokalak. Zelan bost, bat bera

ere ez! Lehen pentsatzen nuen beraien 'kontrolpean' ez zeudelako ez zituztela babesten. Orain, iritiz aldatuta nago eta benetan sinisten dut axolagabekeria dela zergatia. Ez dituzte aintzakotzat hartzen. Ez daude kontra, kia, hori baino mingarriagoa den jarrera dute: berdin zaie zertan dabilta, zer dioten, zelako asmoak dituzten, bizirik ote diren kezka ez zaie burutik pasatzen. Esandakoa, hemengo erakundeek ez zaizkie piperririk inportatu ez aldizkariak, ezta irrati-telebista lokalak ere. Ume aroan gertatzen den bezala, 'txikiakin' ez dute jolastu nahi. Hori bai, hedabide 'handien' atzetik hor ibiltzen dira arreta-eske.”

EDORTA ARANA
'ARGIA'/04-10-01

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



Jabetza komunitarioa

Gure bioaniztasuna arriskuan dago. Gure hizkuntza eta kulturak ez ditu egindako ahaleginen pareko aurrerapean lortzen. Gure ekonomia desorekatua dago, eta gure nekazaritza ia betirako hondatua daukagu. Gure egokitasun sozialak gabezia nabariak ditu. Elkarbizitarako harremanak gero eta berekoikeri handiagoa dute; gero eta isolatuagoak dira. Heredatutako ondasun ekologikoak barre egiteko gogoa ematen digu. Hori aurrerakuntza dela diote.

Estatirik gabeko errealitate soziokultural bereiztuetan jabetza estatalean eta jabetza pribatuan oinarritutako garapenak porrot egin du. Alta, errealitate kultural bereiztuak betidanik defenditu egin dituen jabetza komunitarioa izan da. Horrela diote komunitate indigenen bizirauteko esperientziek. Horri esker Amerikako kontinentean oraindik gelditzen dira indiar

izena duten komunitate soziokultural bereiztuak. Genozidioaren eta kolonizazioaren aurrean bizirauteko ezinbestekoa izan da. Inken gizartean oraindik dauden Ayllu horiek dira erreferentzia garrantzitsuenetariko bat. Globalizazioaren aurrean,

“Ekosistema defendatzeko ezinbestekoa izan zen jabetza komunala, industrializazioaren aurretik”

komunitatetik kanpora harreman merkantilistak garatu behar dira; baina komunitate barnean elkarrekotasuna, demokrazia partehartzailea, identitatea eta elkartasuna. Horretan datza komunitatearen indarra.

Eta ezin ahaztu Euskal Herrian industrializazioaren aurretik euskal ekosistema defendatzeko ezinbestekoa zela jabetza komunala. Egungo gizartean hortik datoz gure herria, nortasuna eta gizartea defendatuko dituzten garapen ereduak. Finka dezagun Arrasaten eta ibarrean jabetza komunitarioaren menpe dagoen norabidea, jarduera ekonomiko eta politikoak horren zerbizurako ezarriz.

Arrasate PRESS

Otalora Lizenziaduna 31

20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 11

Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker BarandiaranERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier UrzelaiMAKETAZIOA
Alex AzkarateZUZENTZAILEA
Sergio AzkaratePUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol ElortzaADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe BengoaBANAKETA
Marta LeturiaLEGE-GORDAILUA
55-1124/88ISSN
0214-4654TIRADA
7.350 aleGoiena
Komunikazio Zehitzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Eusko Jaurlaritzako
Kultura sailaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaAramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Harrobien azterketen emaitzak

Arrasateko Udalak sei hilabete behin egiten ditu Arrasateko harrobietan azterketak, eta hauek dira azken azterketako emaitzak: Kobate harrobian, partikula solidoen kantitatea mugaren azpitik dago; eta, azterketa sonometrikoak eta uraren azterketak ere emaitza onargarriak eman dituzte. Aire kalitateari dagokionez, baina, harrobia dagoen lekuan hauts handia dagoela esaten dute emaitzek.

Kanpanzar harrobian, berriz, azterketa sonometrikoak, uraren azterketak eta aire kalitatea neurtzeko azterketak emaitza onak eman dituzte.

Bedoñabeko haurtzaindegia, irekita

Egubakoitzean ireki zituen atea Bedoñabe haurtzaindegi publikoak. 0 eta 2 urte arteko 20 umerekin hasi dira lanean, baina gurasoek badute oraindik euren umeak Bedoñabera eramateko aukera.

Aurreikuspenen arabera, urri erdialdean zen zabaltzekoa Bedoñabeko haurtzaindegi publikoa, baina lanak uste baino hobeto joan dira, eta egubakoitzean hasi ziren zerbitzua ematen. Lau hezitzaile dabilta bertan lanean, eta hamaika hila-bete egunero hamaika orduko zerbitzua emango dute.

Kilometroetako lekukoa, Arizmendik

Joan den domekan egin zuten Zarautz-Orion Kilometroetako jai handia, eta datorren urtekoa prestatzeko lekukoa Arizmendi ikastolak hartu du. Gura dute Arizmendikoek datorren urteko Kilometroak aurtengoa bezain arrakastatsua izatea, eta hori lortzeko dagoeneko hasi dira lanean.

Dagoeneko badituzte logotipoa eta leloa: grafiti baten gainean marraztutako *Plazara* hitza da leloa. Eta ikastolen jai prestatzeko lantaldeak osatu dituzte: salmenta taldea, arte eta sormen taldea... Dagoeneko 500 boluntario daude.



Udal aldizkariaren zenbaki berria, kalean

Udalak bi hilean behin kaleratzen du udal aldizkaria. Eta kaleratu berria da iraileko zenbakia. Hain zuzen, azken hilabeteko gorabeherak batzen ditu, eta ibarreko kontuak ere badakartza. Gainera, gomendioez osatutako eranskin bat egin dute; etxebizitza bat erosi edo obrak egin behar dituenarendako zuzendutakoak, besteak beste.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Umeak, ispilu

Astean, beste behin, gertaera latz asko agertatu dira munduan. Iraken hildakoak pilatuz doaz, berdin dio umeak edo helduak izan. Jaioterriaren arabera, biktimek ez dute adinik ezta aurpegirik ere. Horregatik ez du halako garrantzirik. Palestinan ere gauza bera gertatzen da. Azkeneko astean Israelgo armadak palestinar mordoa

erail ditu. Ume, gazte eta zahar ugari, tartean.

Telebista irudietan ikusi dugunez, palestinar gizajoek, dagoeneko, ez dakite laguntza nori eskatu, eta euren jainkoarenganako fedea ere galtzen hasi dira. Ez da harrizkoa, nazioartean euren alde ez duelako ia inork egiten.

Palestinako eta Irakeko umeekin alderatuz, mende-

baldean umeak oso ondo bizi dira. Baina, gizateria oso gaixo dago.

Orain dela gutxi Hondarribian jazotako ezbeharrak bazter guztiak harrotu ditu. Ezagun da umeak oso krudelak izan daitezkeela, baina beste ume bat hain muturreko egoerara heltzea ikaragarria da. Ezin da halako gertaera bat orokortu, baina horrelako kasuak badaude, eta gurasoek eta hezitzaileek lan handia egin beharko dute halakorik errepika ez dadin.

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

MUGIKORTASUN PLANA DELA-ETA, AUTOEN ETA OINEZKOEN MUGIMENDUA AZTERTZEN

Astean herritar bat baino gehiago ohartuko zen hainbat lagun oinezkoei eta auto gidariei inkestak egiten ibili direla. Horrez gain, hainbat errepidetan zinta moduko batzuk jarrita egon dira. Horren guztiorren zergatia da Udalak mugikortasun plana hitzartu zuela, eta azterketa batzuk egiten dabilela. Udal-

tzainak autoan edo kamioian zihoazenei gelditzeko eskatu eta baiezkoa eman dutenei, beste lagun batzuk inkestak egin dizkiete. Honako datuak batu dituzte: sexua, ibilgailu mota, bidaiari kopurua, nondik nora zihoazen eta autoa zergatik hartu duten. Oinezkoei antzeko galderak egin dizkiete. /I.B.

ad **Ibabe****IBABE GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARTEIndustria
hornidurakSan Andres auzoa 2. 5-6
Pab.

Tel.: 943-71 21 41

Faxa: 943-71 21 40


**Taberna
Berri
jatetxea**Durana 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67

Maritxuk erakutsi du, egunez edo gauez, nagusi zein gazteendako jaia dela

ARRASATE PRESS

Maritxutan goizean goizetik irten behar izan genuen kalera argazkiak ateratzera, ordurako **Joxe** kalean zebilen-eta. Ez dakigu Maritxutan trajea janzten duen arrasatear nagusia den, baina bai jaia goizean goizetik hasten dten lehenetakoa. Eguerdiko partean harri-patu genituen **Patxi, Itziar** eta **Pedro**, Maritxutako automobil elegantea etxera nola eraman pentsatzen. Elegante bezain eder irten zirenak **Olaia, Laura** eta koadrilakoak izan ziren. Horiei ere egunez atera genien argazkia, baina ez galdetu noiz erretiratu ziren etxera. Eta gauean ateratako argazkien artean iritsi zaizkigu bederatzi laguneko koadrila hori eta beheko argazki handia. **Mertxek** guraiko du ondoko argazkia; ea oraingoan **Sergio** portatzen den eta kopia eramaten dion. Eta esker-rak beheko argazkia ateratzeko **Unai Rubio** zegoen, bestela, nola elkartu horrenbeste lagun?

Gutxik hasten dute Maritxu Kajoi jaia goiko argazkian azaltzen den Joxek bezain pronto



ELKARRIZKETA

JOSE RAMON MADUIT/PSIKOLOGOA

“Gaur egun askotan esaten dute haurrei oinarria falta zaiela”

ARRASATE IRRATIA/UBANE MADERA

Urriaren 20an ikastaro bat abiarazi behar dute Emakume Txokoan: 0-3 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoendako masaje-ikastaroa. Jose Ramon Maduit psikologo eta prebentzioan aditua izango da irakaslea.

Azkenaldian entzuten gabiltza haurren garapenerako garrantzi handia dutela masajeek...

Bai. Masajea oso laguntzaile garrantzitsua da; umea inguratzen duen giroaren lagungarri egiten da-eta. Giro egoki hori aitaren, amaren eta seme-alaben artean indartzeko; harremanari gertutasuna eta gozotasuna emateko eta osasunari kasu egiteko balio dute masajeek.

Baina orain arte ume txikien gorputzak ukitzeak beldurra eman izan digu, apurtuko dugun beldurrez...

Hori izaten da aurretik ez dugulako esperientziarik izan; gure gizartean haurrerekiko oso hartu-eman txikia dugu, ez dugu horretan laguntzen gaituen girorik. Baina geroago eta gehiago ikusten dugu haurrak zenbat eta gehiago laztandu, besoetan eraman edo ukitu, nolabait ere haren osasuna hobetu egingo dela, eta gainera, asko ari da hedatzen hori. Gurasoak hasi dira ikusten umea ukitzea ez dela horren txarra; haurrari masajea emateak euren konfiantza ematen die haurrerekiko harremana gertuago egiteko, eta horregatik geroago eta gehiago ari da masajea hedatzen.

Psikologoa eta prebentzioan aditua izanda, lehenago izango duzu halako esperientziarik...

Bai. Prebentzioan aditua naiz, daramadalako azken 15-20 urte haurdunekin lanean; gainera, umea izan eta hurrengo hiru urtetan eurekin lanean jarraitzen dugu.

Hemen emango duzun ikastaroaren gainean, bi taldetan banatu duzu ikastaroa, adinaren arabera...

Bai. Lehenengoa da 0-1 urteko umeena. Haurrak geldiago egoten dira eta beste masaje mota bat ematen zaie: bere garapen maduratiboan lantzen da. Berezi-ki, sistema nerbioa goitik behe-ara garatzen da; oro har, pertsona heltzeari laguntzen dio. Hala, masajearen bitartez, horko muskuluak eta horko prozesua indartzen laguntzen dugu.

Sasoi horretan, adibidez, zein gorputz ataletan ematen da masajea?

Poliki-poliki burutik hasten da eta begien inguruak lantzen dira, gero ahoan ere berdin eta baita ere buru atzean. Buru atzekoa



Ikastaroa emakumezkoen zein gizonezkoen dago zuzenduta.

“Gurasoek umeekin denbora laburra egiten dute; etekin handiena atera behar diote”

oso inportantea da. Ikusten dugu hori lantzen ari garenean haurrek batzuetan lo hartzen duten-eta guzti. Umeek zenbaitetan izaten dituzten tentsioak arintzeko.

Masajea ematerakoan kontuan hartu behar den arlorik garrantzitsuena giroa da. Giro horretan zentzumen guztiak dute eragina: ahotsak, eskuek, begiek... Masajea emateko lasai egon beharra dago, giro gozoa egon beharra dago... Egin beharrekoa gogoz egin beharra dago eta haurrak gogoz onartu behar du guztia. Gurasoen eta seme-alaben arteko begirada ere oso inportantea da...

Eta 1-3 urte bitarteko umei beste era baten ematen zaie masajea?

Bai, aldatu egiten da. Haiekin

“Umeekin egiten den denborak egokia eta errespetuzkoa behar du izan; maitasuna adierazi behar da”

jolas gehiago egiten dugu; gehiago mugitzen dira, mugimendu horri jarraitu egin behar izaten diogu, gurasoak umeen parera jarri behar dira, lurrean... Masajea emateaz gain, jolas ere egiten dute. Artikulazioak-eta ere lantzen ditugu.

Hortaz, ikastaro praktikoa izango da ala papera eta boligrafoa behar dugu?

Lehenengo aldiaren ikastaroren nondik norakoen berri ematen dugu eta gero praktikoa izango da. Landuko dugu, adibidez, haurrek koordinazio aldetik izan ditzaketen zailtasunak, umeek kolpeak hartzen dituztenean zelanbait hartzen duten sustoa arintzeko ere oso egokiak dira masajeak...

Arrasateko
euskalgintza

Euskaltegiako ikasleek bat egiten dute Zahar Berriren ekintzetan.

Euskaltegiak hasi dira euskara irakasteko lanean

U.M.

Oporren ostean, umez gain bestelako jende asko hasten da eskolan. Nork bere ikasgaia lantzen. Euskara ikasten hasten direnak ere ugari dira. Hala kontatu digute Arrasateko bi euskaltegiak: Erdu-AEKn eta Udal Euskaltegiak.

Urriaren hasi dira eskolan Erdu-AEKn. Oskar Elizburu ardura-dunak kontatu digunez, aurten 14 talde dituzte AEKn: hasierako urratsean bi; beste bi hiru-garren urratsean; bi gehiago seigarrenean eta beste bi zortzigarrenean. Guztira, 57 ikasle. Horrekin batera, enpresetan sei talde dituzte eta Arrasateko sei lagun Bergarako euskaltegira doaz EGA ikastera.

Eskaeraren bilakaeraren gainean zera adierazi digu: zenbait urtetako geldiekin ostean, orain berriro ere hasi dela indartzen hasierako urratsaren eskaera. “Kanpotik etorritako jende asko dabil izena ematen: etorkinak...”. Enpresei begira, berriz, dio antzera samar dabilzala. Taldeek aurrera egiten dutela, prozesu osoa bukatu arte eta talde berriak apenas sortzen diren arren, enpresa berrietan sortzen direla taldeak. Bukatze-ko, kontatu digu ikastaro zehatzekin lotutako geroago eta eskaintza handiagoa dutela: aktak idazteko ikastaroak, e-mailak bidaltzeko... Ikastaro laburrak izaten dira halakoak.

Udal Euskaltegiari dagokionez, 258 ikasle dituztela kontatu digu euskaltegioko idazkari amaia Aranek: ohiko 16 talde, enpresetan beste zazpi talde eta hiru talde berezi dituzte, hain zuzen ere. Ohiko taldeen barruan, hasiera mailan eta erdikoan bosna talde dituzte eta goi mailan sei talde.

Udal Euskaltegiak igarri dituzten aldaketan artean, Amaia Aranek adierazi digu orain ikasle helduagoak dituztela, eta helburu zehatzagoekin joaten direla euskaltegira. Horren ondorioz, ikastaro espezifikagoak ematen dituzte. Adibidez, Osakidetza profila ikasten dabilten ikasle dezentek dituzte. Etorkinekin ere lan egiten du Udal Euskaltegiak. Esan digutenez, iaz etorkinez osatutako talde bat izan zuten eta aurten ere badituzte etorkinak, baina talde arruntetan sartu dituzte, integrazioa bultzatzeko. Bestalde, Amaia Aranek nabarmendu gura izan du gabezia handia dagoela euskaldun zaharren artean. Oro har, ez dutela euskaltegiari jotzeko ohiturarik.



Badakitzu mediku euskaldune eukitako eskubide daukatzule?

Zure eskubide hau ez dala beteten?

EZ IXILDU!!!
ALDARRIKATU ETA SALATU

www.behatokia.org edo deitu

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

EUSKARAREN
TELEFONOAN 902 194 332

EAJren jarrera ez demokratiko eta iluna kritikatu du PSE-EE alderdiak

UBANE MADERA

Udal gobernuak eta zehazki EAJ alderdiak duen jarrera ez demokratikoa salatu zuen PSE-EEK. Gaineratu zuen gobernuak ez duela erakutsi elkarriketarako borondaterik eta alkateak ez duela lortu gobernatzeko beharrezkoa den aldartea.

2003ko urriaren 16an esandakoa bete eta alderdi sozialistak udal gobernuaren jardunaren gaineko balorazioa egin du. Oro har, udal gobernuaren eta bereziki EAJ alderdiaren gaineko kritika zorrotzak egin zituzten Paco Garcia bozeramaileak eta Blanca Roncal legebiltzarkideak.



PSE-EE alderdiak eguaztenean egin zuen prentsaurrekoa.

ILUNTASUNA NAGUSI

Salatu zuten PSE-EEren ekarpenak eta parte-hartzea baztertzearaino, EAJ alderdiak gai asko lantzen izan dituela gainerako alderdiekin berba egin barik. Ezta udal gobernu-kideekin ere. Adibide moduan, azkeneko udalbatzarrean gertatutakoa. Paco Garciak gogora ekarri zuen Egitamu Orokorren onespina atzera bota zela EAJren bi gobernu-kidek (EBk eta Aralarrek) eta oposizioak ez zituelako EAJren proposamena onartu. Gaineratu zuen gobernatzeko modu horrek (elkarriketa-

rako joerarik ezak) arazoak sortu dizkiela agintariei, adibidez, Udaleko langileekin; eta halakorik orain arte ez dela sekula gertatu.

KOOPERATIBEN ALDE

Horren guztiaren arrazoiaren gainean, PSE-EEK esan zuen akaso alkatearen jatorriarengatik dela, enpresa pribatutik etorri delako alkatezara. Hala, zalantzan ipini zuten alkatearen gaitasuna Udala moduko erakunde publiko bat gobernatzeko. Horrekin batera, eta Udalak azken urte eta erdian

LKSri esleitutako lan kopuruaren aurrean, EAJ kooperatibismoaren alde egiten dabilen susmoa duela esan zuen PSE-EEK.

GABEZIA UGARI

Bukatzeko, herrian gabezia handiak izaten segitzen duela salatu zuten: aisialdian, aparkalekueetan... Baina bereziki garraio publiko eta ospitale duinen beharra nabarmendu zuten. Jakinarazi zuten Arrasatek EAEko BPGren %30 sortzen duela eta trukean ez duela ia ezer jasotzen.

Lur azpiko ontziak ipintzeko aukera

Arrasateko Udaleko teknikariak iaz hasi ziren herrian lurpeko zaborontziak ipintzeko aukera aztertzen. Baina sasoi hartan, Mankomunitateak erantzun zien lan hori Udalaren kontura egin beharko luketela.

Orain, berriz, Mankomunitateak proposatu dio lur azpiko edukiontziak ipintzea Udalari. Orain-

go honetan zera proposatu dio: lur azpiko edukiontziak Mankomunitateak erosiko dituela, baina edukiontziok ipintzeko lanetaz Udala arduratuko dela. Horrez gainera, ontziak ipini ostean, haien mantentze-lanak ere Udalaren gain uztea proposatu du. Hain justu ere, Arrasateko Udalak azken proposamen hori ez du ondo ikusten.

Kontuak kontu, Udalak asmo tin-koa du Arrasaten lur azpiko edukiontziak ipintzeko eta zera aurreratu digute: laster egingo dituzten Mondragones eta Azoka kaleetako urbanizazio lanak aprobetxatu eta hantxe ipiniko dituztela herriko aurreneko lur azpiko edukiontziak. Datorren urtean izango da hori.

LABUR

Domu-Santu egunean Aldai hilerria ez zabaltzeko aukera aztertzen dabil Udala

Aldai hilerriaren egoera dela-eta, Udala pentsatzen dabil Domu-Santu egunean hilerria ez zabaltzea. Zerbitzu Saitetik jakinarazi digutenez, bi arrazoi daude hori egiteko: arriskutsua delako hilerrian ibiltzea; eta nitxo gehienak hutsik egon arren, askok hilkutxak-eta barruan dituztelako eta hori ikuskizun desegokia litzatekeelako.

Birziklatutako elementuekin egindako jantzien erakusketa ipiniko dute Monterronen

Astelehenean zabalduko dute Tytti Thusberg finlandiarraren erakusketa. Hiru astean izango da ikusgai. Euskal Herrian bizi den diseinatzaileak birziklatutako elementuekin egindako jantziak erakutsiko ditu, guztiak ere zein baino zein ikusgarriagoak. Nazioartean eta hemen inguruan erakusketa ugari ipini ditu artista horrek.



Lapurreta egin nahian harrapatuta

Udaltzainek lapurreta egin nahian zebiltzan gizonezko bi (Bergarako eta Gasteizkoa) atxilotu zituzten astelehen gauean. Erdiko kaleko Oskarbi denda barruan harrapatu zituzten. Baina lapurrak Garagorri optikan izan ziren lehenengo. Dendariak kontatu digunez, optikako atea indarrez zabaltzen ahalegindu ziren, baina ez zuten lortu. Horren ostean, atea alboan dituen kristaletako bat apurtu zuten, baina handik ezin izan ziren barrura sartu. Edozelan ere, bizilagunen batek zaratak entzun eta udaltzainei abisatu zien; zapata-dendan harrapatu zituzten.




URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



AITOR LIZARRALDE

Anaitasunak norgehiagoka guztiak berdindu egin baditu ere, ez da defendatzera bakarrik zelairatzen den talde horietakoa.

FUTBOLA

Anaitasunaren kontra ahaztu behar du Mondrak Irunen gertatutakoa

Orain arteko partidu txarrena egin zuen Mondrak Irunen, Real Unionen kontra (4-1)

XABIER URZELAI

Mondraren gabezia guztiak agerian geratu ziren joan den astean Irunen, baina horiek gorde eta taldearen aurpegi onena erakutsi guran zelairatuko dira bihar, 16:30ean, Arrasateko jokalaria. Hamabosgarren postuan dagoen Anaitasuna izango da kontrarioa.

Mondrak baino puntu bat gutxiago du Anaitasunak, baina oraindik ez dute norgehiagokarik galdu. Ez galdu eta ezta irabazi ere, guztiak berdindu dituzte-eta. Horrek esan gura du beste gau-

za guztien gainera talde ordenatua dela, lekua galtzen ez duena, eta talde horri gola egitea lan nekeza dela, oraindik inork ez die eta gol bat baino gehiago egin.

AHAZTU ETA AURRERA EGIN

Joan den asteko porrota dela-eta, Mondrako taldekideak ez daude pozik Real Unionen kontra erakutsi zutenarekin, eta badute horretarako motiboa. Real Union gehiago izan zen baloia jokatzerako orduan: abilagoa bat bikoetan; trebeagoa baloi geldiko jokaldietan; indartsuagoa goitik egindako jokaldietan eta azkarragoa alderatzeetan. Eta, hori

guztia gutxi balitz, Josu Berasategi epaileak hartutako erabakiek ez zioten taldeari mesede egin, ezta gutxiago ere. Izan ere, gaizki hartutako bi erabakiek erabat baldintzatu dezakete norgehiagoka.

Hala ere, justua da esatea Real Union Mondra baino gehiago izan zela, bigarren zatian batez ere. Irungoek lau gol egin zituzten, horietako hiru baloi geldiko jokaldietan. Jakina da buruzko jokaldietan badaudela Arrasatekoa baino talde indartsuagoak, eta horretan kontuz ibili behar dute, batez ere joan den asteko moduko futbol zelai txikietan.

GIPUZKOAKO BIRA

Hondarribiatik Donostiarako ibilbidea egingo dute Besaidekoek urriaren 17an

Besaide Mendi Elkartekoek urriaren 17rako antolatu dute Gipuzkoako Birako hurrengo etapa. Oraingoan, Hondarribiatik Donostiarara joango dira, eta hori egin ahal izateko egun osoko txangoa antolatu dute.

Izena eman gura duenak urriaren 13an edo 14an Besaideren egoitzara joan beharko du 19:30ak eta 20:30ak bitartean. Urriaren 17an, 07:30ean irtengo da autobusa Garibai etorbidetik eta Arrasatera itzultzeko autobusa 18:00etan hartuko dute Donostian.

FOTOKIROLA



Urnietaren kantxan, Ligako debuta

AGR Arrasatek Urnietan hasiko du Liga Txapelketa, bihar, 11:30ean. Zubia dela-eta, lehen territorial mailan ez da Liga jardunaldirik izango, baina bi talde horiek joan den astean atzeratutako norgehiagoka jokatuko dute. Arrasateko taldeko entrenatzaile Andoni Arandoren esanetan, Urnieta ez da kontrario erraza: "Beteranoak dira, eta hobeak ez badira ere badakite min egiten". Bigarren territorialeko Arrasate B taldeak Aloña Mendiren kontra jokatuko du bihar Iturripen, 11:00etan. /X.U.

ERRUGBIA

Galdu, baina itxura ona erakutsita

Santanderren galdu egin bazuten ere, Arrasateko jokalaria uste baino hobeto moldatu ziren

X.U.

Arrasate Errugbi Taldeak galdu egin zuen Ligako lehenengo jardunaldian (26-6), baina maila berriko debuta ez zen uste bezain gogorra izan. Santanderrek ez zuen gura bezain erraz irabazi.

Arrasateko taldeak uste baino kontrario gogorragoa espero zuen Ligako lehenengo jardunaldian. Santanderko Independientek arrazoi ekonomikoak medio goiko mailara ez igotzea erabaki zuen, eta jakina zen Arrasatekoen mailan jaun eta jabe izango

zirela. Santanderkoek, baina, ezin izan dute joan den urteko talde bera mantendu; jokalaria garrantzitsu askok taldea utzi dute.


HASIERA PAREKATUA

Arrasatearrak Santander aldera biharamun apur batekin joan baziren ere, beldur barik hasi ziren kontrarioari aurre egiten. Lehenengo minutuetan Arrasate izan zen erasotzeaz arduratu zena, eta Santander bere zelaian ibili zen, defentsa lanetan. Orduan, baina, Independiente-koek baloia lapurtu eta kontraerasoan egin zuten norgehiagokako lehenengo entsegua. Horrek

gauzak nabarmen aldatu zituen, eta lehenengo zatia amaitu zenerako, Arrasateren kontrarioak lau entseguko aldea zeukan.

Bigarren zatian, Arrasate zigor kolpeen bidez ahalegindu zen markagailuko aldea txikitzen, baina sei puntu besterik ez zituzten lortu. Norgehiagoka galdua ere taldeak itxura polita erakutsi zuen. Txarrena da Zanzo eta Servi min hartuta itzuli zirela, eta badirudi Servi-k denbora beharko duela sorbaldako lesioa gainditzeko.

Zubia dela-eta, Arrasateko taldeak deskantsua izango du oraingo asteburuan.



ARRASATE ERRUGBI TALDEA

Zanzo, argazkian, eta Servi min hartuta itzuli ziren Santandertik.



Eskerretik eskuinera: Xabier Barberena, Rafa Etxabe, Jon Basurko, Pedro Amaral eta Ander Mallabiabarrena.

XABIER URZELAI

SASKIBALOIA

Mugarrik eta Alkesak hiru urtez babestuko dute Arrasateko taldea

Zigor-Ola elkartean aurkeztu zituzten martitzenean Arrasateko taldearen bi babesleak

XABIER URZELAI

Liga gura moduan hasi ez badu ere, Mugarri Alkesa Arrasate taldeak indarberrituta hasi du aurtengo denboraldia. Zuzendaritzan lagun berriak sartu dira, eta datozen hiru urterako babesleak lortu dituzte.

"Egia da orain arte Arrasateko taldearen zuzendaritzan ibili garenok nekatuta geundela. Taldeko zuzendaritzan, baina, lagun berriak sartu dira, eta ekarri duten gogoarekin lehen geundenok ere animatu gaituzte", esan zuen taldeko presidente Jon

Basurkok, martitzenean, Zigor-Ola elkartean egin zuten babesle berrien aurkezpenen.

BABESLEAK, BEHARREZKO

Zuzendaritzakoak lanean hasi orduko garrantzi handiko bi laguntzaile lortu dituzte: Ford Mugarri eta Alkesa eraikuntzak. Jon Basurkok azaldu zuen babesleek zenbaterainoko garrantzia daukaten: "Gure helburua da Arrasaten saskibaloiak jarraipena izatea, eta garai bateko zaletasuna berreskuratu gurako genuke. Gainera, guk izan genuen moduan, oraingo gazteek ere aukera izan behar dute saskiba-

loian jokatzeko. Hori guztia lortzeko beharrezkoak dira gazteak, beharrezkoak entrenatzaileak, beharrezkoak dira zuzendaritzakoak eta baita babesleak ere. Alde horretatik eskerrak eman gura diegu Mugarri eta Alkesari gu laguntzera animatu direlako. Orain, babesleak pozik egoteko gogor egin beharko dugu lan".

Ford Mugarriko Rafa Etxabek ere esker oneko berbak izan zituen: "Orain arte beste kirol batzuei laguntzen ibili gara, txirrindularitzari, batez ere. Orain, baina, gurako genuke gure laguntzarekin eta taldearen lanarekin zerbait polita egitea".

Aurten, Liga eta Kopa jokatuko dituzte Zaldibarren

X.U.

Aurtengo Zaldibarko Txapelketa berrikuntza askorekin dator. 19 taldek eman dute izena, eta erakargarritasunaren alde bi txapelketa tartekatuko dituzte: Liga eta Kopa, hain zuzen.

Gauzak diren moduan: Zaldibarko Txapelketan gero eta talde gutxiagok ematen dute izena. Antolatzaileek, baina, ez dute amore eman gura eta txapelketa interesgarria izan dadin aldaketak egin dituzte. Berrikuntza nabarmenena da taldeek Liga eta Kopa jokatuko dutela. Ligan, 19 talde horiek multzo bakarra osatuko dute, eta sailkapenean ahalik eta goren egotea izango dute helburu. Kopan, berriz, 19 talde

daudenez, zozketa bidez 3 talde kanpoan utziko dituzte, eta gaitzaren 16 taldeek final zortzirenetan hasiko dute txapelketa. Gainera, bi txapelketa horiek tartekatuz jokatuko dituzte; oraingo asteburuan Liga, hurrengoan Kopa...

TALDE ASKO BATU DIRA

Joan den urtean jende gutxiarekin ibili ziren talde askok indarrak batzea erabaki dute. Adibide moduan, Etxerat, Komando Alpargat eta Koka Juniors taldeek talde bakarra osatu dute: Irati. Eta, Aramaioko Rayo Aldeano eta El Ekipo A taldeak El Ekipo Aldeano sortzeko elkartu dira.

Oraingo asteburuan deskantsua hartu, hurrengoan hasiko da eta Zaldibarko Txapelketa!!!



XABIER URZELAI

Astlehenean eta martitzenean ibili ziren antolatzaileak izenak hartzen.

EHIZA

Datorren martitzenean, hilaren 12an, hasiko da Euskal Herrian ehiza denboraldia

Arrasateko ehiztariak irrikaz itxaroten ibili diren eguna iristeko ez da asko geratzen, datorren martitzenean, hilaren 12an hasiko da eta Euskal Herrian aurtengo ehiza denboraldia. Uso pasako sasoi ere gertu dago, eta gutxien espero dugunean hasiko dira milaka uso ibarreko zerua zeharkatzen. Ehizan egiteko postuetako zozketak eguazteno egingo dituzte Arrasateko Leintz elkartean.

"NOLA ZORIONTSU IZAN BARRUA ETA KANPOA ZAINDUZ"

INFORMAZIOA JASO ETA IZENA EMATEKO:

Noiz: Urriaren 15a baino lehen

Nola: 651 70 79 36 telefonora deitu

ZER DA?

Urria eta azaroa bitartean egingo den zikloa, gai askotariko adituekin batera lanean. Emakumeoi osasuntsu bizi izaten lagunduko digun zikloa izango da.

GAIAK:

- Oreak fisikoan bizitzen lagunduko diguten fisioterapia-ko ariketen tailerra (urriak 18, 20 eta 21, 18:00-20:00 bitartean, Basterretxea zentroaren eskutik).
- Aurpegiko azala zaintzen ikasteko tailerra: makillajea eta kremak (urriak 25 eta 27, 18:00-20:00 bitartean, Irati Zubizarretaren eskutik).
- Etorri eta galdetu! Elikadurarekin zerikusia duten gai-

xotasunei buruzko solasaldia (urriak 28, 18:30-20:00 bitartean, Leire Ezkurraren eskutik).

- Nork bere burua eta gaitasunak ezagutu eta baloratzen ikasteko tailerra (azaroak 3 eta 4, 18:00-20:00 bitartean, Arantzazu Loidiren eskutik).
- Autobabes tailerra: eraso fisiko eta psikologikoei aurre egiten ikasteko tailerra (urriak 16 eta 23 eta azaroak 6 eta 13, larunbatetan, 11:00-14:00 bitartean, elkartearen eskutik).

NON IZANGO DA ZIKLOA?

- Elkartearen egoitzan: Ekin Emakumeak Elkarte Paulo Uranga 4, behea - Arrasate

Antolatzailea:

Ekin

Emakumeak • AED

Paulo Uranga 6, behea-20500
ARRASATE
Tel.: 943798370 / 651707936.

Laguntzaileak:

Emakume Saila



ARRASATEKO UDALAK
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Gipuzkoako Foru Aldundia



EMAKUNDE



ARRASATE PRESS

Orain dela urte batzuk bertso eskolak egin zituzten Arrasaten.

AEDk, Loramendik eta Axtrokik bertso eskola sortu gura dute

IKER BARANDIARAN

Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako euskara elkarteek indarrak batu dituzte Leintz Bertso Eskola egiteko. Helburua da 9 eta 11 urte bitarteko gazteen artean bertso zaletasuna piztea.

Askotan esan ohi da Leintz inguruan bertso zaletasun txikia dagoela. Beste batzuek, berriz, esaten dute ez dagoela ikasteko aukerarik, eta arrazoi horregatik hemen bertsolari gutxi daudela.

Arrasateri dagokionez, AEDk egin du zelanbaiteko ahalgina. Esaterako, azken urteotan, egubakoitzero, bospasei lagun elkartzan dira elkarteak Pablo Urangan duen lokalean. Lagun artean afaldu, bertsoan egin eta hainbat ekitaldi antolatu ohi dituzte. Taldea irekia da, eta inguruko herrietako lagunak ere esku hartzen dute. Herriko jaietan edo bestela, makina bat bertso saio eta bertso afari antolatu izan dituzte.

TXIKIENETATIK HASI

Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere antzeko premiak ikusi dituzte; hau da, gaztetzoei bertso-larritza zertan datzan erakustea, eta norberak, zaletuz gero, bide hori jarraitzea. Horregatik,

AEDk, Loramendik eta Axtrokik indarrak batu dituzte eta Leintz Bertso Eskola sortzeko ahaleginetan dabilta.

9, 10 eta 11 urte dituzten gaztetzoei eman gura dizkiete eskolak. Hasiere baten, eskolak AEDko lokalean emango lituzkete, egubakoitzetan, 17:00etan. Horren iraupena ordu eta erdikoa edo bi ordukoa litzateke. Asmoa da eskolak urriaren 29an hasia eta San Juanak arte luzatzea. Hala ere, plangintza hau behin-behinekoa da, eta izena ematen dutenen inter-

resen arabera, ordutegia aldatu egin dezakete.

Modu berean, hiru elkarten artean eskola bakarra egitea ipini dute helburu, baina aurretiaz herri bakoitzean talde bat egiteko premia egongo balitz, gehiago egingo lituzkete.

URRIAREN 27A AURRETIK IZENA EMAN

Leintz Bertso Eskolan esku hartzeko izenematea urriaren 27an bukatuko da. Arrasateko interesatuek AEDra jo beharko dute; gainontzekoek, euren herriko euskara elkartera. Irakaslea Nerea Urria izango da, AEDko bertso eskolako kidea bera, eta matrikula 20 euro izango da.

Izan ere, aspaldi honetan, Nerea Urria eta Jokin Labayen, biak AEDko bertso eskolakoak, bertso-larritza eskolak ematen dabilta Lehen Hezkuntza duten hainbat eskolatan. Hezkuntza arautuaren barruan ematen dute, euskarazko ikasgaiaren barruan.

BERTSOEKIN AISIALDIA EGITEA

Antolatzaileen esanetan, asmoa ez da etorkizunerako bertsolariak sortzea, halakorik balego poztuko lirakeen arren. Horren ordez gurago dute gaztetzoei artean bertso zaletasuna piztea; bertsoen inguruan ondo pasatzea eta jolastea. Hau da, bertsoan ikasi eta ondo pasatzea.

**9, 10 eta 11 urteko
gastetzoei
zuzenduta dago
sortu gura duten
Leintz Bertso Eskola**

**Helburua da
gastetzoei artean
bertso zaletasuna
piztea eta ondo
pasatzea**

Spielberg-en azkeneko drama, 'Shin Chan 2' eta komedia bat

I.B.

Atzo, eguna, zinekluba hasi zen. Gaurtik, egubakoitza, martitzenera arte, *La Terminal* filma emango dute. Are gehiago, domekan eta martitzenera, *Shin Chan 2* emango dute, txikiendako.

Dagoeneko abian da egunen arteko asteburu film eskaintza. Are gehiago, asteburu hau berezia denez, martitzenera arte, berau barne, emango dituzte filmak.

SPIELBERGEN AZKENA

Gaurtik, egubakoitza, martitzenera arte, *La Terminal* filma emango dute. Steven Spielberg (*Tiburón*, *El imperio del sol*, *La lista de Schindler*...) zuzendu du eta 128 minutu irauten du.

Viktor Navorski Ekialdeko Europatik New Yorkera joango da oporretan, baina bidean doala bere herrian gerra piztuko da. Horregatik, ez diote New Yorkeko aireportutik irteten utziko,


gerra hori bukatu artean. Han hainbat hilabete igaro beharko ditu, aireportutik irten barik.

Aktore ezagunek esku hartzen dute: Tom Hanks (*Ladykillers*, *Naufrago*...), Catherine Zeta-Jones (*Crueldad intolerable*, *Trafic*...) eta Stanley Tucci (*Sucedío en Manhattan*...), besteak beste.

TXIKIENENDAKO, 'SHIN CHAN 2'

Domekan eta martitzenera, *Shin Chan*, *en busca de las bolas perdidas* filma emango dute. Marraski bizidunak dira, eta 100 minutu irauten du. Zuzendaria Keiichi Hara japoniarra da. Film horrek eta haren aurrekariak arrakasta handia izan dute nazioartean.

Datorren egunean, urriaren 14an, *Intermission* filma emango dute zineklubean. John Crowleyk zuzendu du eta 106 minutu irauten du. Komedia ganberroa da, eta honako aktoreek esku hartu dute: Colin Farrell eta Shirley Henderson (*24 hour party people*, *Wonderland*...), besteak beste.



ARRASATE PRESS

Tom Hanks aktorea da *La Terminal* filmaren protagonista.

KULTURAPILULAK

Urritik abendura arte Literatura Solasaldiak egingo dituzte Monterongo liburutegian

Ohikoa den moduan, Arrasateko Udal Liburutegiak Literatura Solasaldiak antolatu ditu urrirako, azarorako eta abendurako. Ekitaldi horien koordinatzailea Iban Zaldúa izango da, eta Monterongo kultura etxean egingo dituzte. Izena emateko epea urriaren 15ean bukatuko da, eta interesatuek Monteronera jo beharko dute.

Euskarazko liburuen solasaldiei dagokionez, honako hauek aztertuko dituzte: urriaren 26an, Juanjo Olasagarren *Ezinezko male-tak*; azaroaren 30ean, Jim Thompsonen *1.280 arima*; eta abenduaren 14an, Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea*. Saioak 18:30etik 20:30era izango dira.

Gaztelarazko solasaldiei dagokionez, honako hauek landuko dituzte: urriaren 20an, Clarice Lispector-en *La hora de la estrella*; azaroaren 17an, Coetzee-ren *Desgracia*; eta abenduaren 15ean, Bernardo Atxagaren *El hijo del acordeonista*.

EUSKARA/ Nafarroa Oinez bultzatzeko ekimenak

Nafarroaren gaineko egitarau zabala antolatu dute Portaloi Elkarateak eta AEDk

IKER BARANDIARAN

Nafarroa Oinez datorrela eta, Portaloi Elkarateak eta AEDk Nafarroa hobeto ezagutzeko egitarau zabala antolatu dute Arrasaten. Helburua da Nafarroako egoera aditzera ematea eta gure artean Nafarroaren gaineko sentsibilizazioa piztea.

Urriaren 17an Nafarroa Oinez jaialdi erraldoia egingo dute Lizarran. Ezagun da Nafarroan euskaltzaleek oso premia handiak dituztela, eta horregatik, Arrasateko hainbat euskaltzalek Nafarroaren aldeko ahalegina egin gura dute.

Horren harira, Arrasateko Portaloi Elkarateak AEDrengana jo zuen, elkarrekin zerbait egiteko asmoz. Bien artean egitarau mardula antolatu dute. Urriaren 8an hasi eta 17ra arte egingo dituzte ekintzak.

Orain dela zenbait hilabete ARRASATE PRESSen Portaloi Elkaratea aurkeztu genuen. Hainbat arrasatearrek osatzen dute, eta batez ere euskararen eta eus-

kal kulturaren gaineko ekimenak bultzatu gura dituzte. Horretarako, herriko beste talde batzuekin elkarlana indartu gura dute.

SENTSIBILIZAZIORAKO EGITARAUA

Portaloi Elkarateak oso garrantzitsua deritzo Nafarroako euskaltzaleei laguntzeari, eta horretarako, sentsibilizazioa pizteko Nafarroa Oinez aurreko egunetan hainbat ekintza egingo dituzte.

Gaurtik, egubakoitza, urriaren 17ra arte, argazki erakusketa ipiniko dute Harresi Aretoan. Erakusketa hori Lizarran izan da ikusgai Nafarroa Oinezekin ekinzen barruan. Igor Etxabe zaldibarraren argazkiak dira guztiak. Etxabek hainbat sari jaso ditu

Argazki erakusketa, mahai-ingurua eta kontzertua egingo dituzte Nafarroaren eta euskararen alde


Euskal Herrian eta baita nazioartean ere.

Eguenean, urriaren 14an, mahai-ingurua egingo dute Mondragon Hotelean, *Euskara Nafarroan. Lehena, oraina eta geroa* leloarekin. 19:30ean izango da, eta honako lagunek esku hartuko dute: Erlantz Urtasun historialariak, Euskara Kultur Elkar-goaren presidentea Jose Luis Mendozak, Udako Euskal Unibertsitateko irakasle Patxi Lopezek eta Sortzen taldeko Kristina de Andresek. Moderatzailea Arizmendi Ikastolako presidentea Mikel Lezamiz izango da.

LIZARRAREKIN LOTUTAKO TALDEA

Urriaren 15ean, egubakoitza, ezohiko eskaintza egingo dute antolatzaileek. Galesko pop-rock musika talde batek kontzertua egingo du Herriko Plazan, 19:30ean.

Taldearen izena Estella da. Taldea sortu eta geroago, Nafarroako herri baten izena zela konturatu ziren. Horregatik, euren lehenengo diskoari *Lizarra* izena ipini zioten, eta Euskal Herria ezagutzera etorri ziren.



IGOR ETXABE

Igor Etxaberen argazki erakusketa Lizarran egon da ikusgai orain arte.

TAMAYO ARTE

TAMAYO

Y P E L O

BLOC PARA ESBOZO

ZIRIBORROENTZAKO KUADERNOA

11 HOJAS: 70
100 G/M²

ТАМАЙО : А4 21 X 29,7

KUPOI HONEKIN
%15eko deskontua
ARTE EDERRETA KO MATERIALEAN Urriaren 31ra arte!

J. URIARTE PAPER DENDA
Ferrerias 32 · ARRASATE · 943 77 03 80



PINTOREAREN HILABETEA



BOTEPRONTUEN

Marije Presas

ELIZONDO JATETXIE

XABIER URZELAI

Marijek urte eta erdi daroie Garagartzan dauen Elizondo jatetxien lanien. Itxitte egon dan negoziue aurrera atarateko gogor egin biher da lan, eta Marijek ondo daki hori. Berak ez euen jatetxie hartzeko asmue, baiñe lagun batzuk animaute hasi zan lanien, eta gaur arte.

Azkeneko astiek gogorrak euki dozue: San Migelak leleno eta Maritxu Kajoi gero.

Gogorrak izen die, bai.

Rekuperau gare Maritxu Kajoitik?

Horretan gabitz. Zapatuen be jentie euki neuen, baiñe domekakue egun lasaiaue izen zan.

Maritxutan, gabien euki zeuen lan haundixena ala eguerdixen be etorri zan jentie?

Gabien lan haundixe euki geuen, baiñe eguerdixen be jentie etorri zan bazkaittera.

Eta, zeuk urten zeuen kalera?

Ez, neu sukaldien sartute egon nitzen gaba dana.

Bestela, astien zihher ala aste bukaeran eukitten dozue lan haundixena?

Ze egun dan ikusi biher... Ez neuke jakingo esaten.

Eleixie pegaute eukitte, siñistune izengo zara, ala?

Bai, baiñe ez elixie pegaute daukoguleko.

Zelakuek die Garagartzako auzotarrak?

Oso jente jatorra da, gehixenak baserrikuek die, eta igerrri egitten da. Ondo konponketan naz eurekin.

Gustora Garagartzan?

Oin bai, baiñe hasieran asko kostau jaten auzuen sartzie. Emuten euen hau ez zala Garagartzan, eta eurei esan egitten dutziet, gaiñera. Oin, baiñe, gustora nau.

Igerten da azken urtitan auzue haundittu egin dala?

Neu hamen lanien hasi nitzenerako etxe barrixek egindde euzen, hortan, ezin dot gauza haundirik esan. Neuk lehengo auzotarrek dauket trato haundixena.

Zeure lanerako ezinbestekue



X.U.

“Maritxutan lan asko egitten dogu, baiñe egixe da rentable dala, diru asko irebazten dogu-eta”

dan gauza bat?

Burugogorra izetie. Itxitte euen negozio bat zanez, hasierie gogorra izen zan, eta aurrera egitteko burugogorra izen biher dozu. Gaiñera, huelgiek be kalte haundixe egin euen.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei?

Jentiek esaten dauena: antzerki gehixau, ziniek... Kanpora jueteko biherrik ez eukittie.

Eta, ze dauko ona?

Beste dana!!!

Ze falta jatzu zeuri?

Egixe esatien, ezer be ez.

Eta, ze dauketzu sobran?

Lana.

Pelikula bat. Liburu bat. Musi-

“Hasieran asko kostau jaten auzuen sartzie, eta eurei esan egitten dutziet, gaiñera”

ka talde bat.

Mejor imposible / Vazquez Montalbanenak gustetan jat / Radixue entzuten dot gehixen.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Kristalak garbiketie.

Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeinekin?

Tranpan ibiltteko parejie biher da, eta holakorik egittie burutik pasau be ez jat egin. Argi dauketena da neure buruei ez neuskiola tranparik egingo.

Kapritxo bat.

Mercedes bat. (Barre)

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Edozein landetxetan edarto.

NIREBIDAIAHURA/ Jon Sagasta

Kanadara / 2004ko udan

Hilabete inguru egin zuen Jonek Labradorren, arkeologia proiektuan lanean. Hilabete igaro eta gero, baina, aldatzeko gogoarekin Ternura itzuli zen eta lorategi batean hasi zen lanean: “Nahiko lorategi txukuna zen, baina egia esan, loreen gainean ez nuen askorik ikasi, egiten nuen lana loreak lorontzi batek bestera aldatzea zen-eta. Han ere gustura izan nintzen, jabeen etxean egiten nuen lo eta lanetik irtendakoan inguruan turistendako prestatuta zeuden ibilbideak egiten nituen”. Lorategiko lana amaitutakoan, Port Auchoix-era abiatu zen: “Euskarazko izena ere badu: Portutxo Txikia. Han, lehenengo astea gora begira egin nuen, museoak bisitatu, inguruak ezagutu... Eta bigarren astean bulego bat margotzen ibili nintzen”.

Lanak amaituta, Jonek Gros Morne parke nazionalerako bidea hartu zuen: “Zorte txarra izan nuen han. Sei egun egin nituen parke nazionalen, eta horietako hiru aterpetxean igar nituen, eguraldi txarra egiten zuelako. Animalia asko ikusi ez banituen ere, parkea polita zen. Hori bai, hango animalia ezagunetako bat ikusi nuen: karibua, oreinaren antzekoa”.

Parke nazionaletik lagun batzuen etxera joan zen: “Jende nagusia da, eta andreak lan egin behar bazuen ere, gizona erretirata zegoen. Gizonak inguru guztiak erakutsi zizkidan, eta nik asko eskertu nuen hori. Gainera, eurak arduratu ziren ni jasotzeaz, eta Ternuan horrek asko balio du. Autobus bakarra dago Ternua goitik behera zeharkatzen duena. Eta, autobusa galduz gero, hurrengo egunera arte ez dago ezer egiterik. Hori da hango arazoetako bat, ez dagoela garraibide publikorik. Ternua atzean utzi eta Kanadako hiri nagusiak bisitatzan egin zituen azken asteak. Hori, baina, datorren astean”.

XABIER URZELAI



Jon Grose Morne parkean ateratako argazkian.

“Egunean autobus bakarrak zeharkatzen du Ternua”

“Gazteekin baino gehiago izan naiz jende nagusiarekin”

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

BELEN MAIZTEGI

Domu Santu egunerako
lore-sortak, zentroak,
eta abar.

Enkarguak hartzen dira

Tele-ordainketa

Biteri etorbidea 13

Arrasate

Tel.: 943 08 15 44

LUJIRAK

Unai Bergaretxek irabazi du 'Gomendatzen dizut' lehiaketa

IKER BARANDIARAN


Arrasateko gazte bulegoak antolatutako *Gomendatzen dizut* lehiaketako irabazlea Unai Bergaretxe arrasatearra izan da. Arrasaten 29 gomen-dio jaso dituzte, horietatik 21 euskaraz.

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko gazte bulegoek, uda aurretik, abian jarri zuten *Gomendatzen dizut* lehiaketa. Hiru herri horietako edozein lagunek oportretan ikusitakoaren gaineko gomendioak aurkeztu behar zituen. Herritarrek helarazitako informazio hori baliagarria izango da datozen urteetan gazte bulegoetara informazio bila joaten direnendako.

Gomendioak aurkezteko epea bukatu da, eta antolatzaileak pozik daude ekimenak izan duen harrerarekin. Arrasaten 29 jaso zituzten; Bergaran, zortzi; eta Oñatin, lau. Herri bakoitzean jasotako artean, zozketa egingo dute eta irabazleek landetxe baten asteburu bat igaroko dute.

ARRASATE IRRATIAN, ZUZENEAN

Arrasateko gazte bulegoaren zozketa joan den egunean egin zuten zuzenean, Arrasate Irratian. Gaz-



Joan den egunean egin zuten zozketa, zuzenean, Arrasate Irratian.

te bulegoko arduradun Dorleta Kortazarrek eta Arrasate Irratiko Aitziber Aranburuzabalak egin zuten zozketa. Unai Bergaretxe izan da irabazlea.

Arrasaten batutako gomendioen artean, 21 euskaraz bidali

dituzte, eta gainontzeko zortziak, gazte bulegoko Dorleta Kortazarren esanetan, parte-hartzaile gehienak 20 eta 39 urte bitarteko lagunak dira.

Mota askotako gomendioak jaso dituzte: ostatuei dagozkienak, ibilbideen gainekoak, paisaiari buruzkoak... Are gehiago, parte-hartzaileek hainbat herrialde izan dituzte jomuga: Araia, Bera, Segovia, Santiago Bidea, Eslovenia, Austria, Kanada, Egipto...

Alemaniarako bi irakasle Arizmendin izan dira

I.B.

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako unitateak Alemaniako Alice-Salomon institutu-ko irakasle Thomas Schimikowski eta Timo Engbringen bisita jaso du, Comenius proiektuaren barruan.

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako unitateak Alemaniako Alice-Salomon institututik ikasle batzuk Arizmendi Ikastolara etor-

taren helburua da, Comenius proiektuaren barruan, bi ikastetxeen arteko kirol ziklokoek elkar trukaketa egitea. Alice-Salomon institutukoek Kirol Monitore zikloa eskaintzen dute, eta Arizmendi ikastolako arduradunek interesgarria ikusten dute errealitate biak aztertu eta horrekin biek ikastea.

Proiektuaren aurreikuspena da 2005-2006 ikasturtean Alice-Salomon institututik ikasle batzuk Arizmendi Ikastolara etor-

teza eta planifikazio lan bat egitea. Horrela, ikasturte bukaeran, ikastolako ikasleak Alemaniara joango dira eta aurrez egindako plangintza bukatu egingo dute.

MARITXU KAJOI EGUNETIK EGUAZTENERA

Alemaniarako irakasleak joan den egubakoitzean, Maritxu Kajoi egunean, heldu ziren Arrasatera. Arizmendi Ikastola bisitatu zuten eta proiektu horren gainean azalpenak eman zizkieten. Iluntzean, Maritxu Kajoi jaiaz gozatzeko

aukera izan zuten. Zapatuan, San Viatorren proiektuaren gainean jardun zuten, eta Donostia bisitatu zuten.

Domekan, Kilometroak bizitzeko aukera izan zuten Zarautzen eta Orion, eta harrituta gelditu ziren jai horrek batzen duen jende mordoarekin. Astelehenean eta martitzenean, San Viatorren proiektuaren gainean lanean jarraitu zuten, eta Laidako UR 2000 natura enpresa bisitatu zuten. Eguaztenean joan ziren.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrian erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

arbolapeta



ESKORIATZA

Tfno 714345



Bazkari eta afariak

Astelehenean itxita
ESKORIATZA

ZAHARREN ETXETIK



Udalaren esanetan, Uribarri elkarteko taberna itxita egongo da azarora arte.

Uribarri erretiratuen elkarteko batzarra haserre dago Udalarekin

IKER BARANDIARAN

Uribarri erretiratuen elkarteko batzarra haserre dago Udalaren jarre-
rarekin.

Erretiratuen esanetan, Uribarri elkarteko zaindaria aldatuko zutela jakin zutenean Udalarekin batzar bat egitea eskatu zuten. Batzar hori irailaren 30ean

egin zuten, eta egun horretan esan zieten, hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1a, elkartea itxi beharko zutela, zaindaria aldatu behar zutelako.

Erretiratuak oso haserre daude Udalak ez zielako aurretik ezer esan. "Udalak egin duena zeharo ulertezina da. Horrelako erabaki baten berri hilabeteak lehenago eman beharko luke", azpimarra-

tu zuten elkarteko ordezkariak. Horrekin batera, batzarrak barkamenak eskatu gura dizkie egunero elkartean egoten diren erretiratuei, ezin izan dizkielako itxieraren berri eman.

Udalak zaindari lanpostu hori lehiaketara ateratu du, eta bitartean elkartean aireztatze sistemarekin lotutako konponketa lanak egiten dihardu.

Eskaerak, erretiratuen egunean

IKER BARANDIARAN

Joan den egubakoitzean, Erretiratuen Nazioarteko Eguna izan zen. Horren harira, Hego Euskal Herriko erretiratuen eta pentsionisten lehendakari Jabier Aldaik honako adierazpenak egin zituen Donostian, prentsaurrekoan: "Erretiratuek giza onarpen handiagoa behar dugu. Gizarteak

kontuan hartu behar du zenbat lagun garen, populazioaren portzentaje oso altua gara". Horrekin batera, osasun zerbitzu publikoari laguntza mediko handiagoa emateko eskatu zion.

Aldaik azpimarratu zuen erakunde publikoek erretiratua zama ekonomikotzat dutela. "Hori ez da horrela" salatu zuen, "erretiratuek ezinbesteko funtzio batzuk betetzen ditugulako.

Adibidez, familien kohesiorako oso garrantzitsuak gara. Eta horrez gain, milioika familia-unitate pentsioei esker bizi dira".

Pro Maiorem elkarteko Carlos Aramendik antzeko adierazpenak egin zituen. Horrek geriatría arloko laguntza mediko handiagoa eskatu zuen eta, baita ere, geriatría erizaintza espezializatzen onartzea.

LABUR

Urriaren 20an, Abaroa elkarteko lagunek Iratxera txangoa egingo dute

Abaroa elkarteak Iratxera txangoa antolatu du. Urriaren 20an izango da. Iratxeko kanpinean hamarretakoa egingo dute eta Quaderna-Via upelategia bisitatuko dute. Horren ostean, Iratxe hotelean bazkaria, dantzaldia eta bingo-jokoa izango da.

Interesatuak eguaztenean, urriaren 13a, eman beharko dute izena. Txartelak urriaren 18an banatuko dituzte. Hiru autobus joango dira. Lekurik balego, beste elkarteetakoak joan daitezke.

Eguenean, larruazala zaintzen ikasteko berbaldia egingo dute Uribarri elkartean

Eguenean, urriaren 14a, larruazala zaintzen ikasteko berbaldia egingo dute Uribarri elkartean. Kutzak antolatu du, eta hizlaria Jazmina Nuñez erizaina izango da. 17:00etan hasiko da.

Elkarteko taberna itxita dagoenez, interesatuak Usaetxe plaza-tatik sartu beharko dute, baita ere ikastaroetara doazenek.



Gesalibarko erretiratuei, omenaldia

Domekan, urriaren 10ean, Gesalibarko erretiratuei omenaldia egingo die auzoak. Omenaldi hori urtero egin ohi dute, eta auzotarrek oso gustura hartzen dute ekimena. Horregatik, erretiratu gehienak desatzen egoten dira egun hori noiz heldu.

12:00etan meza entzungo dute auzoko elizan. Elizatik irten ostean, berriketaldi batzuk egingo dituzte. Eta horren ostean, 14:00etan, bazkaria egingo dute Jentil-Ola elkartean.

Ziur mahai bueltan hainbat kontu izango dituztela auzotar beterrano horiek. Ondo pasatu, eta urte askotarako! /I.B.

Hemen

GARBIKETAK

Garbiketetan
profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45 Faxa: 943 71 30 58

Areto dantzak

Tangoa, rock-and-rolla, txa-txa-txa,
baltsea, salsa...

Tituludun irakaslea: Marian Barragan

Martitzen eta zapatuetan

Izenematea: 677 05 30 02 / 943 17 48 85



EZETZASMATU



IKER BARANDIARAN

Non dago argazkian ikusten duzuen margolana?
Arrastoa: kirola egin daiteke bertan.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!



ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Keler 18 De Luxe
6ko packa, 25 cl.

1,98€ 329 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ASIER BERGARETXE erandako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Asier!
Galderen erantzun zuzena:
1981.

ARRASATEKO HISTORIA

Santa Marinako antzinako eliza dela-eta (I)

'MAALAKO ERREBALA' / J. VELEZ DE...

Gaur egun, garbi dugu zein den Arrasateren herri-egitura: nondik nora barreiatzen den eta zeintzuk diren ezaugarriak. Arrasateren antzinako ezaugarriak, aldiz, ez ditugu horren argi. Hara Josemari Velez de Mendizabalek zer dioen:

“Harresiez barruko aldean hiriko eliza nagusia zegoen. Jose Angel Achon historialariari jarraiki 1318koa da San Juan Bataiatzaileari buruzko lehen aipu idatzia. Beraz, hiribilduko elizaren eraikuntza 1260-1318 urteen bitartean egingo zen. San Juanen adbokazioa izan al zuen elizak betidanik? Seguruenik, bai. Izango al zen D. Guillen de Montdragón komendadorea, San Juan Bautista Ordenako kidea zelako? Auskalo!”

Baina, non zegoen 1260 baino lehen Arrasate zaharreko eliz nagusia? Galdera honi erraz erantzun dakioko, dokumentazio zehatz ugari baita gureganaino iritsi. Adibidez, San Juan Bataiatzailea eliz nagusiaren 1573ko txosten batean honela irakur daiteke: ‘Iten, antes que se fundase la dicha villa de Mondragón, para algunas caserías y población derramada que había en tiempos y años pasados,



'MAALAKO ERREBALA' LIBURUA

1967ko apirillean eraitsi zuten Santamaña baserria; haren lekuan, Mertzedarien ikastetxe berria eraiki zuten.

había una iglesia en una montaña y sierra de junto a la dicha villa, que ha más de trescientos años, se trasladó la dicha iglesia de Santa Marina y su parroquia a la iglesia parroquial de San Juan Bautista de la dicha villa y quedó la dicha iglesia de Santa Marina

*Santa
Marinarenganako
kultua Santiagotik
zetozen erromesek
ekarri zuten*

por ermita sin sacramento ni administración de sacramentos’.

Santa Marinari buruz, hona hemen Juan Carlos Guerrak egiten duen aipamena: ‘Los feligreses de Santa Marina de Agirre, que era la parroquia de Arrasate y comprendía los barrios de Zal-

dibar, Bedoñabe, Miatzerreka y Musacola, se emanciparon de Léniz el año 1260, echaron los cimientos de una parroquia nueva bajo la advocación de San Juan Bautista y fundaron la villa de Mondragón, a la cual se agregaron en 1353 las anteiglesias de Uribarri, Udala, Garagarza y Santa Agueda de Guesalibar, separándose de Léniz y formando un grupo rural que se denominó entonces valle de Ugaran, extendiéndose al mismo los mojones del municipio mondragonés’.

Garbi da Santa Marinaren adbokazioa oso hedatua dagoela Euskal Herri osoan. Dirudienez, Santa Marina galiziar martiriarenganako kultua, Santiago Compostelatik itzultzen ziren erromesek ekarri zuten, haruzko bidaian Tours-eko San Martinganganakoa sartu zuten bezalaxe. Baliteke, beraz, garai urruti haieran Arrasatek Santiago Bideko adar txikiren bat igaro izana, Donostia, Deba, Arrasate atzean utzi ondoren Leintzetik gora joan zitekeena. Beraz, Santa Marinari eskaintako elizatzooan zegoen antzinako parrokia. 1967ko apirilera arte ikusi ahal izan genituen arrasatearrok tenplu haren aztarnak. Non? Santamaña base- rrian, noski”.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko urriaren 8a / 124. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Haur-Hezkuntza zerbitzua non ipini erabaki beharko dute eskolak eta Udalak

UBANE MADERA

San Martin Eskolako Eskola Kontseiluak 0-2 urteko umeendako hezkuntza zerbitzu duin eta egokia lortu gura du. Hala, eskolak aurkeztutako proiektuaren alde egiten segituko dute, uste dutelako merezi duela. Datorren ikasturtean abiarazi nahi dute zerbitzua.

Zortzi gurasok eta hiru irakaslek osatzen dute San Martin Eskolako kontseilua. Udalarekin batera, iaiztik dabilta 0-2 urteko umeendako Haur-Hezkuntza zerbitzua Aramaion ezartzeko proiektua lantzen. Hala, Udalak 0-3 urteko hezkuntzaz arduratzen den Partzuergoan sartzea erabaki ostean, Haur-Hezkuntzarendako leku egoki bila hasi ziren.

ADOSTASUNIK EZA

Hain zuzen ere, leku horren aukeraketak piztu du Udalaren eta Eskola Kontseiluaren arteko ikamika. Eskola Kontseiluak adierazi digunez, Udalak gimnasioa edo antzinako ludoteka erabiltzea pentsatu zuen hasieran. Baina Eskola Kontseiluak ez zituen proiektuok begi onez ikusten. Gimnasioan ez zegoelako nahiko altura beste gela bat egiteko. Antzinako ludotekan, berriz, egitura aldetik baldintza egoki falta nabarmenarengatik —argitasun falta, hezetasuna, altuera—, hori ere ez zuen ondo ikusi. Hala, kontseiluak kontatu digu Udalak apirilean Eskola Kontseiluari esan ziola ikerketa bat egiteko asmoa zutela ikusteko eskolaren kanpoaldean eraikin berri bat egitea bideragarria den edo ez. Izan ere, eraikin berria egitea zahar bat egokitzea baino garestiagoa da, eta zenbateraino garestitutako zen jakin nahi zuen Udalak. Baina Eskola Kontseiluak jakinarazi digunez, ikerketa egin badu ere, Udalak ez zien eurei ezer erakutsi.

ANTZINAKO LUDOTEKARENA AURKEZTU
Are gehiago, azkenean, Udalak antzinako ludotekaren proiektua aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ordezkaritzari. Eta Eskola Kontseiluari Udalak adierazi zion Eusko Jaurlaritzak proiektu hura onartuz gero, ber-



Eskola Kontseiluak gura duena da Haur-Hezkuntza zerbitzu osoa San Martin Eskolan egotea.

ARTXIBOA

*Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza
Ordezkaritzari bi
proiektu aurkeztu
dizkiote*

tan eraikiko zutela 0-2 urteko umeendako ikasgela. Hori ikusita, Eskola Kontseiluak erabaki zuen Jaurlaritzari jakinaraztea eurak eta, oro har, gurasoak ez daudela ados Udalaren proiektuarekin eta atzera botatzeko. Gaineratu digute kontseiluaren jokabide hori dela-eta alkatea haserretu egin den arren “ez direla egindakoaz damutzen, jarraitzen dutelako pentsatzen antzinako ludoteka ez dela leku egokia 0-2 urteko umeendako”.

*Dirulaguntzei esker,
60.000 eurotik
beherako kostua
izango luke eraikin
berriak*

ERAIKIN BERRIA

Era berean, Udalaren jarrera ikusita, kontseiluak erabaki zuen Jaurlaritzari beste proiektu bat aurkezte. Hain zuzen ere, eskola ondoan eraikin berri bat egiteko proiektua aurkeztu zion. Eskola Kontseiluak azaldutakoaren arabera, hori horrela egitea erabaki dute batetik Udalak ez zuelako esana bete eta ez zielako agindutako proiektua aurkeztu (eraikin berriarena); bestetik, benetan jakin nahi dutelako

*Udalaren eta
eskolaren asmoa da
Haur-Hezkuntza
zerbitzua datorren
urtean abiaraztea*

euren proiektua Udalak dioen besteko garestia izango den ala ez. Eta hirugarrenik, proiektua eginda dutenez, beharrezko baldintzak betetzen dituen edo ez jakitea nahi zutelako.

BESTE PROPOSAMEN BAT

Bestalde, azkeneko udalbatzararak erabaki zuen antzinako ludotekaren proiektua atzera bota dutela-eta beste proiektu bat aurkeztuko ziotela Jaurlaritzari. Mertxe Mondragon alkateak jaki-

narazi digu dagoeneko aurkeztuta dagoela. Hain justu ere, Aita Gabriel kaleko jauregiko erdiko blokearen azpian egitea proposatzen dute, Udalak dituen lokaletan.

HEZKUNTZA OSOA ESKOLA INGURUAN

Horren gainean ere galdetu digu Eskola Kontseiluari eta erantzun digu kasu horretan Udalak proposatzen duen lokala egokia dela, gutxieneko baldintzak betetzen dituelako. Baina, era berean, uste dute lokala San Martin Eskola inguruan egon behar dela, batetik hantxe kokatzearen herriko hezkuntza osoa eta bestetik, leku banaketa horrek Haur Hezkuntzako 0-3 urteko zikloa hezkuntza aldetik zatitu egingo lukeelako, gaur egun 2 urtekoen gela eskolan dagoelako. Hori dela eta, Eskola Kontseiluak eurek aurkeztutako proiektuaren alde egiten segitzen du: eskola ondoan eraikin berria egitearen alde. Proiektu horren kostuaren gainean, berriz, diote Udalak aurkeztutako proiektua baino garestiagoa izan arren, Mendikoiren dirulaguntzei esker, 60.000 eurotik beherako kostua izango lukeela eraikin berria egitea.

BERBA EGIN ETA ERABAKI

Hala, bada, Jaurlaritzak Udalaren eta eskolaren, bien proiektuak onartzen baditu, Eskola Kontseiluak eta Udalak proiekturik egokiena zein den erabaki beharko dute. Eskola Kontseiluak dio behelburua ez dela eztabaidan ibiltzea, baina era berean uste du bere proiektua bidezkoa dela eta Udalak ez duela porrot egingo.

Mertxe Mondragonek, berriz, adierazi digu Udalak proposatzen duen proiektua Jaurlaritzan dagoela eta haren erantzunaren zain daudela. Gaineratutakoaren arabera, proiektua onartu egiten badie, eskolakoei aurkeztuko diote eta guztien artean erabaki beharko dute zer egin.

DATORREN URTERAKO

Kontuak kontu, adierazi digute guztien asmoa dela Haur-Hezkuntza zerbitzua, 0-2 urtekoa. 2005-2006 ikasturteko iraillean abiaraztea. Orain, lekua aukeratzeko bakarrik falta zaie.

KIROLA

Kurtzeta-Gain elkarteko kide nagusiari omenaldia egin diote

UBANE MADERA

Kurtzeta-Gain elkarteak urteko batzarra egin berri du. Egun berean, San Migeleko tirada egin zuten eta elkarteko kide nagusiari omenaldia egin zioten: Felipe Ullibarriarana Mendozari, hain justu ere. Besteak beste, elkarteak lehendakari berria aukeratu du.

Kurtzeta-Gain elkarteko kide Juan Luis Nafarratek jakinarazi digunez, urteko batzar orokorra eta San Migeleko tirada aprobetxatu zuten elkarteko kide nagusiari omenaldia egiteko. Felipe Ullibarriarana Mendozak 80 urte beteko ditu egun gutxi barru eta elkarteko kiderik zaharrena izateaz gain, elkarteko bazkide da Kurtzeta-Gain sortu zenetik. Are gehiago, plater-tiroko elkarte sortu baino lehen ere plater-tiroan jarduteko zaletasuna zuela kontatu digute. Gainera, bere zaletasun hori semeei erakutsi die eta semeetako lau eskopetariak ditu. Hain justu ere, Kurtzeta-Gain elkarteak lehendakari berria aukeratu du azkeneko batzar orokorrean eta Felipe Ullibarriaranaren Angel semek bete-ko du lan hori.

Hala, hori guztiori eskertze-ko, oroigarria eman zioten Kur-



KURTZETA-GAIN ELKARTEA

Felipe Ullibarriaranari oroigarria eman zioten San Migeleko tiradaren aurretik.

tzeta-Gain elkartekoek Felipe Ullibarriaranari San Migel tirada egin baino lehen. Horren ostean hasi zuten San Migeleko tirada, Kurtzetako kantxan. Tirada 15 palterretara izan zen. 25 bat tiratzailek jokatu zuten. Guztien artean, 14na berdindu zuten Mikel Uribarrenek eta Enrike Ullibarriaranak. Berdinketa

hausterakoan, Mikel Uribarren gailendu zen.

AFARIA ETA BATZARRA

Tiradaren ostean egin zuten urteko batzar nagusia, Izarra elkarte- an. Landutako gaien artean, elkar-terako batzorde berria aukeratu zuten. Lehen esandako moduan, Angel Ullibarriarana aukeratu

dute. Datozen bi urteotarako lehendakaria izango da. Orain, berak aukeratu beharko du batzorde berria osatzeko antolaketa berria.

Juan Luis Nafarratek kontatu digunez, batzar nagusiaren ostean, afaria egin zuten elkartean bertan. Eta horren ostean sari-banaketa egin zuten, guztia lagun-arteke giro ezin hobean.

Aire libreko pintura lehiaketa egingo dute

U.M.

Itur-Zuri elkarteak aire libreko pintura lehiaketa antolatu du. Datorren martitzenean, hilak 12, jokatu dute. Interesa duen Aramaioko edozeinek parte hartu ahal du. Parte-hartzaile guztien artean, sei irabazle aukeratu ditu epaimahaiak. Sari banaketa egunean bertan egingo dute.

Aire libreko margo lehiaketan parte hartu gura duenak lehiaketaren egunean bertan eman beharko du izena. Ohi duten moduan, goizean jokatu dute lehiaketa. Lehiakideek 09:00etatik 11:00ak arteko denbora izango dute margolanak egiteko.

ZAINDU BEHARREKO ARAUAK

Itur-Zuri elkarteak jakinarazi digunez, Aramaioko edozeinek parte har dezake aire libreko margo lehiaketan. Erabili beharreko teknika ere librea da. Hori bai, gai jakina landu beharko dute: Aramaio eta bere ingurua.

Margolanak egin ostean, parte-hartzaileek eta antolatzaileek bazkaria egingo dute San Martin Eskolan. Eta arratsaldean sariak banatuko dituzte, 18:30ean hasita.


SEI SARI, ADINAREN ARABERA

Itur-Zuri elkarteak sei sari pres-tatu ditu lehiaketarako. Lehiakideen adinaren arabera banatuko dituzte. Hala, 16 urtetik gorako parte-hartzaileen artean hiru sari bantuko dituzte: 600 euro eta oroigarria lehenengoari; 360 euro eta oroigarria bigarrenari eta 240 euro eta oroigarria hirugarrenari.

Gazteagoendako, berriz, beste hiru sari izango dira (16 urtetik beheragoendako): 150 euro eta oroigarria lehenengoarendako; 60 euro eta oroigarria bigarrenarendako; eta 30 euro eta oroigarria hirugarrenarendako.

Epaimahaia margolariek edo margolaritzarekin zerikusia duten pertsonak osatuko dute.

Bestalde, parte-hartzaileen margolanak astebetzez Sastiñan ipiniko dituzte.



Maritxu Kajoiri debozioa erakusten

Maritxu Kajoi egunak jende asko erakarri ohi du. Zela ez, aramaiorak ez dira aparte geratzen txikiteroen amaren xarmaren erakargarritasunetik. Hala, haren deiarri kasu egin, dotore-dotore jantzi eta zintzo-zintzo jaitsi ziren argazkiko hiru lagunak Aramaiotik Arrasatera. Ez dakiguna da gero Arrasaten zintzo ibili ziren, baina seguru ondo asko ibili zirela! /U.M.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaizintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	09:00	08:05
	10:15*	09:15
	11:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoaren orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ZINEMA SAIO BIKOITZA

Asteburu luzea dela-eta, zinema saio bikoitza antolatu dute. Gaur, barikua, Tim McCanlies zuzendariaren *El Secreto de los McCann* filma emango dute. Astelehenean, berriz, Siddiq Barmak zuzendariaren *Osama* filma emango dute. Bi filmak 22:30ean hasiko dira.

ERRIOXARA TXANGOIA

1954an jaiotakoek, 50 urte bete dituztela ospatzeko, Errioxara txangoa egingo dute hilaren 23an. Interesa duenak hilaren 17a baino lehen eman behar dio izena Loli Lasagari edo Martin Arriolabengoari. Urriaren 23an, 09:00etan aterako dira; 10:30ean, hamarretakoa egingo dute, Biasterin. 13:30ean Izadi upeltegiak bisitatuko dituzte, Urionan, eta han bazkalduko dute, trikitilari eta guzti.

ESKER ONA

Irakurle batek zorionak eman nahi dizkio eta esker ona adierazi Ibarrik Inurrirako bidea garbitu duenari. Urtetan garbitu barik egon ostean, ezezagun horrek sasi guztiak garbitu dituela esan digute.

ERRETRATUZAHARRA

Santa Ageda eskea bizi-bizi Mondragoen

Oraingo sasoikoa ez den argazki zahar bat aukeratu dugu argitaratzeko. Irakurle batek ekarri digu, eta halakoak, normalean, dagozkien egunetan bakarrik argitaratzen ditugu. Urtean lagun gutxi animatzen dira argazkiak ekartzera, baina sasoi ésanguratsuetan argitaratu barik utzi behar izaten ditugu, batzutan pilatu egiten zaizkigulako. Santa Ageda egunean, esaterako, behin baino gehiagotan gertatu zaigu hori. Gure berriemaileak ekarritakoa, otsailera arte itxaron beharrean, orain argitaratzea erabaki dugu.

1959koa da. Gure berriemaileak kontatu digunez, honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik eskumara, zutik: Jose Ramon *Txori*, Julio Iriondo, Luis Maria Maidagan, Kabuena baserriko Jose Sulpicio Perez mando eta guzti, *Mallabi*, Esteban Pagoaga eta Nikolas Agirre *Maño*. Eta honako hauek daude makurtuta, ezkerretik hasita: Rafa Fernandez, Juan Egidazu *Kurri*, Elias Ugalde eta



Bixente Etxebarria *Txistulari*.

Zarugalde kalean dago aterata argazkia, Kanpanzarrerako igoyeraren hasieran. Horrenbeste argazki atera dituen Pedro Sologaiak *Laso*-k ateratako argazkia da. Argazkia aterata dagoen lekuaren parean Zarugaldeko garbitokia zegoen.

Gure berriemaileak kontatu digunez, goizean goizetik ateratzen zen argazkiko lagun koadrila Santa Ageda egunean kantura; lehenengo San Juan parrokiaren meza entzuten zuten, 08:00etan. Handik Musakolako azkeneko baserrietaraino joaten ziren; horren ostean Arrasatera itzuli

eta Bedoñararako bidea hartzen zuten; eta handik Arrasatera itzultzen ziren.

Argazkia eta berriemaileak:

Rafa Fernandez.

Urtea: 1959

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Mondragon hotela, San Juanetarako

1997ko urrian hasi zituzten Zerrajerako bulegoen eraikin zaharra hotel bihurtuko zuten obrak. Lekua ona zen, oso ona, eta eraikina ere esanguratsua. Garai hartan herritarren ahotan ibili zen eraikin hori aproposa izango litzatekeela herritarrei hainbat zerbitzu eskaintzeko, baina eraikin hori ez zen Udalarena, pribatua zen. Eta Hotel Alto Deba enpresak erosi zuen.



≈ 1997 Hotelak 400 milioi pezeta inguruko inbertsioa behar izan zuen, eta garai hartan 20 lanpostu sortu zituen.



2004 Hotela bultzatu zuten enpresaburuek uste zuten Arrasatek behar zuela horrelako eskaintza egin-go lukeen hotela.

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABAleta

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko



Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20


Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua


Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak

igo autobusera



**Astelehenetik
egubakoitzera**
Goizeko 9etatik aurrera



FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irrastian
Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com



Opel. Ideia berriak. Auto hobirik.

Beste bost arrazoi edukitzeko:

Segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna.



Opel Astra berria. Segurtasun handiena. EuroNCAP, 5 izar.



Opel Astra berriak EuroNCAP 5 izar lortu ditu eta goreneko puntuazioa ondorengoetan: alboko eta aurretiko inpaktua txoke proban eta umeei babesa Sedan trinko kategorian. SAFETEC sistema berritzaileak segurtasun aktiboa konbinatzen du, eta hau guztia du barne: IDSplus xasisa, faro moldakorak, aurretiko aire-zakuak, segurtasun pasiboan berriz: aurretiko aire-zakuak, gortina aire-zakuak eta alboko aire-zaku handiagoak. Astra autoaren inguruan informazio gehiago nahi baduzu, bisita ezazu gertuen daukazun Opel banatzailea edo deitu 902 20 05 90 telefonora edo sartu gure webgunera: www.opel.es

Astra gama: konsumoa (l/100 km) mistoa 4,9tik 9,3ra. CO2 emisioa (g/km) 132tik 223ra.

Giauto

San Andres 10 D Tel.: 943 77 30 10
ARRASATE